

## Lehen muztioarekin topa herrikoa XVIII. Sagar Uzta ospatzeko

📅 Ira 30, 2018 🌐 Ekitaldiak, Sagarra 💬 0 comments



Sagar Uztak hemezortzigarren edizioa bete du aurten sagardotegietako dolaretako lanen hasiera ospatzeko eta sagardoaren kulturaren oinarrituriko jarduerara ugari izan dira jardunaldi osoan zehar Astigarragan. Azpimarratzekoa da urten ekitaldiak izan duen Sagardun Patzuergoko sagardotegi eta herriko sagardotegien (Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko sagardotegiak eta besteak) nahiz herriko kultur taldeen parte-hartzea “Astigarraga eta sagardoa” lelopean, besteak beste: Astigar E.O.E., Gure Izarra, Goldea Herri Kirol Batzordea, Mundarro Kirol Elkartea, Norberto Almandoz Musika Eskola, Xaguxar, Zipotza Kultur Elkartea, Txirriskla Txistulari Taldea, Erbitegi Etxeberri Txalaparta Taldea, Astigarragako Herri Eskolako Guraso Elkartea, Harituz eta Astiko Dendarien Elkartea.

Sagarra protagonista izan da gaur Astigarragan. Foruen enparantzan sagarraren festa ospatu da: bertako nahiz nazioarteko sagarren erakusketa eta dastaketa, muztio eta sagardo dastaketa, saski eta txertaketa erakustaldiak eta **2018 uztako lehen muztioaren elaborazioa**. Astigarragako hainbat familiek dolarean bertan muztioaren usadiozko elaborazio prozesuan parte hartu dute **sagar bildu, jo eta zanpatuz**. Behin elaborazio lanak bukatuta, **lehen muztioarekin topa herrikoa** egin da txalapartaren erritmora.



Harrera bikaina izan dute gaurko jardunaldian XVIII. Sagar Uzta 2018 ospatzeko antolaturiko jarduerak, besteak beste: **familiantzako sagar muztioaren elaborazio lanek** (60 parte-hartzaile), **muztio nahiz sagardo dastaketak** (13 sagardogile), **XI. Sagar Uzta argazki rallyak** (14 parte-hartzaile), **sagar marmelada tailerrak** (25 parte-hartzaile) eta **sagar postre lehiaketak** (8 parte-hartzaile), Ane Dominguez izan delarik irabazle.

Aurreko egunetan ospatu diren jarduerak ere parte-hartze handia izan dute: **pintxo-poteak**, “**Sagar motak ezagutuz**” Santiagomendiko Sagardo Bidean zeharko mendibuektak (20 parte-hartzaile), familiantzako **sagarrekin egindako apainketa tailerrak** (40 parte-hartzaile) eta **I. Sagar Uzta Erronka Indoor** kirol probak. Kirol proba honen lehen edizioan Zelaia sagardotegia izan da irabazle, Zapiain sagardotegia bigarren eta Oialume Zar sagardotegia hirugarren.

Sagar Uztako argazkiak eskuratu

## Bilatzailea

<input type="text"/>	Bilatu
----------------------	--------

## Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

Museoak

Sagardoa

Sagardotegiak

Sagarra

Sagastia



Turismoa

## Artxiboak

Hautatu hilabetea

## ZATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN  
LURRALDEA**  
el territorio de la uida

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

## LAGUNTZA BEHAR DUZU?

 **943 550 575**

JARRAI IEZAGUZU...



## ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

## SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

## SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

## SAGARDO FORUM

Informazio orokorra

Argazkiak

Hitzaldiak

## AGENDA

## BLOGA

## HEDAPENA

Boletina

Buletinera harpidetza

Sare sozialak





**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua  
LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#) [PROIEKTUAK](#) [AKORDIOAK](#) [KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)

